

## Atsegindegin sondeoak egiten ari dira lur azpian aparkalekuak egiteko zein aukera dauden ikusteko

■ Asmoa da 180 bat aparkaleku egitea eta 10.500 eta 12.000 euro artean kostako lirateke bakoitza ■ Udalak enkueta bat egin du eta 211 eskaera jaso ditu ■ Sondeoek esango dute zein aukera dauden parkinak egiteko.

ATSEGINDEGIN parkin subterraneoak egiteko zein aukera dauden ikusten ari da Udala. Sondeoak astelehenean hasi zituzten eta sondeo horiek esango dute zer dagoen zoru azpi horretan. Asmoa da lur azpiko aparkalekuak egitea hernaniarrentzat edo Hernanin lan egiten duen jendearentzat. Parkinak 2000 m<sup>2</sup>-ko 3 planta izango lituzke seguruenara, eta guztira 180 bat kotxerentzako tokia egongo litzateke. Aparkaleku bakoitzaren prezioa 10.500 eta 12.000 euro artekoa izango litzateke eta 75 urteko konzesio administratiboa egingo litzaioko erostunari. Parkinarekin batean gune estali bat egiteko asmoa ere badu Udalak Atsegindegi gainean, herrian egiten diren kultur eta bestelako ekintzetarako.

Oraindik ez dago ezer erabakita eta sondeoen emaitzak jaso ondoren ikusi beharko da asmoa biablea den ala ez, Manuel Fraile hirigintza zinegotziak Kronikari adierazi dionez.



Atsegindegin sondeoak egiten. Harkaitza bastante behean omen dago puntu honetan.

**211 eskaera**  
Udalak galdeketa bat egin zuen urri inguruan herritarren artean, parkin berriek

zenbat erostun izango lituzketen jakiteko. Guztira 211 lagun azaldu dira interesatuta Atsegindegin parkinak egite-

arekin, hamarretatik bedertziz kaxkoan bertan edo Atsegindegi inguruan bizi direnak. □

## Naiara Subizaren pinturak Txeman

NAIARA Subiza Popiren kua-droak daude Txema tabernan urtarrila bukaera arte. Subizak Bellas Artes ikasten du eta lehenengotako erakusketa da Txemakoa. Egurra-pintura teknika mixtoa erabiliz egin ditu lanak eta munduarekiko bere barru pentsakera, eta dudak azaltzen ditu. Egunerokotasuna eta horren inguruko bere pentsaera ikusi daiteke Subizaren lanean. □

## Manuel Rodriguez de Mendarozketa anarkistak hitzaldia emango du bihar Andragoton

MANUEL Rodriguez de Mendarozketa Donostiarrak hitzaldia emango du bihar Andragoto kafetegian, arratsaldeko 20:00etatik aurrera. Rodriguez de Mendarozketa Donostiako Alde Zaharrean jaio zen eta 90 urte ditu. Militante anarkista izandakoa da, FAI (Federación Anarkista Iberikoa) eta CNTn ibilia. Manuel bibolin jolea ere bada eta hizketa errezekoa. □

## EAK Hiri Batzarra du gaur Alkartetxean

HERNANIKO Eusko Alkartasunak Hiri Batzarra egingo du gaur Alkartetxean, arratsaldeko 19:00-etan. EAK dei egin die afiliatu eta jarraitzaile guztiei batzarrera agertu daitezen. □

## Kaldereroetako azken entsaioa gaur

KALDEREROAK otsailaren 1ean dira eta entsaioekin hasiak daude Elur Txori elkartearen. Azken entsaioa gaur 20:00etan. □

## Lur kortak umeentzat ipuiak kontatuko ditu bihar liburutegian

BIHAR arratsaldean umeentzako ipuiak izango dira Biteri kultur etxe-ko liburutegian, Lur Korta ipui kontariaren ahotik. Arratsaldeko 17:30-etan, 3-4 urteko umeentzat izango da lehenengo sesioa; eta jarraian, 18:00-etan, 5-7 urte artekoentzat bigarren sesioa. □



Itziar Zubizarreta ipui kontatzen liburutegian.

## GARAYAR AUTOBUSAK



**AUTOBUS ZERBITZUA  
LINEA ERREGULARRAK**  
Hernani - Aiete - Donostia - Aiete - Hernani  
Andoain-Urnieta-Hernani-Donostia-Hernani-  
Urnieta-Andoain  
**ZERBITZU DISKREZIONALAK  
(ESKOLARRAK)**

Jauregi bailara 17 - Tel: 943 556 658 - 943 556 662  
Faxa 943 331 208 - e-maila: mgarayar@facilnet.es  
20120 HERNANI (Gipuzkoa)

## Club Estrella

Helbideratu zure pentsioa eta aurkitu adinekua izatearen abantailak



la Caixa

Helbideratu hemen zure pentsioa eta eramanez opari hauek\*

## Helbideratu zure pentsioa "la Caixa"n eta gozatu Club Estrella-ren abantailez

✓ Kobratu zure pentsioa beste inork baino lehen  
✓ Goza ezazu bizialdi osoan hileroko errenta

Hilak  
25  
erako

✓ Zeuretzat bakarrik den doako txartela eskura



la Caixa

✓ Zure etxeraino iristen gara

✓ Beti zure ondoan gaude:  
- "la Caixa"ko edozein bulegotan  
- Club Estrella-ko telefonoan: 902 288 882  
- www.laCaixa.es helbidean  
la Caixa

## GAZTE TXOKOAN DROGARI BURUZKO HILABETEA



Gazte Txokoko eta Askagintzako arduradunak eta Oihulari Klown taldeko zuzendaria eta antzerkilariak. Antzerkilariak dira: Maria Alonso, Joanez 'Loko'iza, J. Carmen Muñoz, Itziar Lamuerta eta Txefo Rodriguez. Teknikoa, berriz, Sergio Daneri.

## Oihulari Klown taldeak gaur estrenatuko du Hernanin 'Drogak larrugorritan' antzerkia

■ Drogen ingurukoak tratatzen ditu, "baina, modu umoretsuan" ■ Oihulari Klown taldeak eta Askagintzak egin dute obra elkarlanean ■ Biterin, arratsaldeko 19:30etan.

**DROGAK Larrugorritan** lana emango du Oihulari Klown taldeak Biterin, Gazte Txokoko drogen inguruko ekintzen barruan. Lana Askagintzak eta Oihulari Klown taldeak berak egin dute elkarlanean, Birginia Imaz antzerki taldeko zuzendariak herenegun prentsaurrean esan zuenez, eta gaur estreinatuko dute. Imazen hitzetan zaila da drogen inguruan umorezko zerbait egitea, gizartean "alarmismoa eta erantzun drastikoak sortzen dituen gaia baita". Baina, Oihulari Klownek esperientzia badu lehendik. Antzezlari honekin drogen inguruko hipokresia soziala azaldu nahi dute eta "desfasatzean bakoitzak duen erantzukizuna" ere bai.

### Reflexionatzeko bidea

Antzezlaren helburua ez da ez drogen inguruko debekua azaltzea eta ezta drogen aldeko apologiarik egitea ere. Helburu nagusia reflexionatzeko bidea jartzea da, gaiaren inguruan pentsatzea, alegia. Horretarako gaia umorez tratatzen da, eta ahal dela gairik eta egoerarik gor-dineak metafora eta zehar bidean

esplikatu.

Antzezlana gazteei zuzendua da, baina, nagusientzat ere interesgarria dela esan zuten

atzo prentsaurrean eta gaiaren inguruko interesa duten guztiei dei egin diete Biterira azaltzeko. Gaur 19:30etan. Debalde da.



Drogak eta testing-a tailerrak ikusmina sortu zuen.

## 200 bat gazte hartu dute parte

GAZTE txokoak drogen gaiari lotutako hilabetearen balorazio ona egin du, orain artekoak. 3 tailer egin dituzte: *kannabisa; drogak sexua eta... eta drogak eta testing-a*, eta horrez gain pelikulak ere bota dituzte gaiaren inguruan. Orain arte 200 bat gazte ibili dira ekintza hauetan, Gazte Txokoko arduradunek esan dutenez, eta hasieran zailtasun pixka bat izan badute ere azkenean ondo erantzun du jendeak. Gaurko antzerkiarekin bukatuko da gaiaren inguruko hilabetea. Jardunaldi guzti hauen helburua da "gazteek drogak eta ondorioak ezagutzeko, kontsumitzen badute ere kontsumo responsablea egiteko".

Arrakasta haundintsuena izan duen tailerra drogak eta testing-arena izan da. Hegoak taldeko lagun bat etorri zen azalpenak ematera, joan den ostiralean. Drogak zerekin adulteratzen dituzten eta zein pureza duten ikusi zuten. Drogak analizatuta ez da kontsumitzeko edo ez kontsumitzeko mezua zabaldu nahi, drogek zer duten jakin eta kontsumo responsablea bultzatu nahi du Hegoak talde nafarrak.



Jendea ordenagailuetan Udal informatika aretoan.

## Web orriak diseinatzen ikasteko kurtsoa Udal informatika aretoan

■ Otsailaren 10etik 14ra da 16:00etatik 20:00etara  
■ Ikastaroa oinarrizkoa da.

UDAL informatika aretoak web orriak diseinatzen ikasteko kurtsoa emango du. Dreamweaver programa erabiltzen erakutsiko dute. Dendari eta negozio txikiak dituztenek beren web gune txikiak egiten ikasteko aproposa da kurtsoa, eta baita bere web orri partikularak egin nahi dituen jendearentzat ere, Udal informatika aretotik Kronikari jakinarazi diotenez. Kurtsoa oinarrizkoa da, informatikari buruz ezer gutxi dakienarentzat ere aproposa.

### Hogei ordu

Hogei orduko kurtsoa da. Otsailaren 10etik 14ra emango da arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara. Izena emateko Udal informatika aretotik pasatu (Larramendi 11) edo 943 551000 telefonora deitu, arratsaldeko 15:00etatik 21:30etara.

Dreamweaver programaz gain, windows+word, internet eta beste zenbait kurtso ere badaude aukeran. Kurtsoaren prezioa 36, 55 eurokoa da. □

## Bilera egingo du gaur Astintzen taldeak Andragoton

ASTINTZEN musika inguruko taldeak bilera egingo du gaur Andragoto kafetegian, gaueko 22:00etan. Bilera au-

rerra begirako planifikazioa egiteko izango da eta Astintzenek dei egin du bilerara azaltzeko. □

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

#### ☎ FARMAZIAK

- ▶ Eguez: Bilbao-Sagastiberri Urbieta 7 ☎ 943 552941
- ▶ Guez: Bilbao-Sagastiberri Urbieta 7 ☎ 943 552941

### IRAGARKI MERKEAK

CAZENEVE 500 x 1000 toroa daukat salgai. Dena reformatua, bisualizadore eta guzi. Deitu: 943 33 18 61

**mikel armendariz**  
proiektu eta instalazio  
elektrikoak  
Tel. 649 846 422  
HERNANI

**HATOR**  
Asesoría  
AHOLKULARITZA  
Fiskala  
Laborala  
Kontablea  
Administratiboa  
Kardaberaz 60  
Tel. 943. 55 43 12  
20120 HERNANI

**ALTZUETA**  
TOLARE - SAGARDOTEGIA  
www.altzuetasagardotegia.com  
Astearretik Larunbatara  
irekita  
Altzuetasagardotegia S.L.  
Osinaga Auzoa, 7 • 20128 Hernani  
Tel./Fax: 943 55 15 02  
e-mail: altzuetasagardotegia.com

**OINDI**  
taberna  
NAGUSIA, 25  
HERNANI  
943 557 509

**BATISTA MUJICA eta LUTXI TELLERIA**  
50 URTE ELKARREKIN,  
ZORIONAK  
Bihotz horietan eroin zenuten maitasunaren hazia, harez geroztik mende erdia ez da alperrik pasia. Elkar maitatu, gogor lanean eginkizun nagusia horregatik gaur daukazu sendi jator bat hazia; gaurko gazteok zuengandikan badugu zer ikasia. **Familiak**